

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

MUTRIKUKO UDALA

Iragarkia

Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko irailaren 18ko erabakiaren bidez 2025 ekitaldiko Mutriku enplegua sortzeko eta ekintzaitasuna bultzatzeko laguntzak emateko programa arautzeko oinarriak (Mutrikulan) onartu ziren.

Kontuan harturik adierazitako oinarriak, dirulaguntza honi dagokion deialdia burutzen da eskariak aurkezteko 15 egun naturalerako epea irekiz.

Mutriku, 2025eko irailaren 18a.—Ainhize Azpiaz Azkarga, (6480)

Enplegua sortzeko eta ekintzaitasuna bultzatzeko laguntzak emateko programa arautzeko oinarriak (Mutrikulan). 2025 deialdia.

ATARIKOA

Ordenantza honetan ezarritako neurriek honako helburua dute: Ordenantza honen helburua enplegua sortzen duten enpresa-proiektu berriak sustatzea da, bide batez, lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten emakumeen eta kolektiboen laneratzeara ahalbidetzen dutenak saritu eta enpleguaren sorrera bultzatuz.

Udalerrriaren egungo egoera dela eta, enpresa-dentsitate txikia duenez, beharrezkoa da enplegua sortzen duten enpresa-proiektuak sustatuko dituzten programak eratzea, tokiko garapena ahalbidetzeko eta udalerriko jarduera ekonomikoa dinamizatzeko. Horretarako, beren proiektuen kudeaketa erraztuko dien ingurune administratiboa jarriko da ekintzaileen eta enpresen eskura, eta udal honetako Garapen Sozioekonomikoaren Arloaren aholkularitza teknikoa izango dute, Eskualdeko Garapen Agentziarekin (Debegesa) elkarlanean.

Neurri horiek enplegu soziala deitutakoa ere sustatuko dute, hau da, autoenplegua eta kudeaketan langileen parte hartze zuzena ahalbidetzen duten enpresak (adibidez, kooperatibak).

Neurri horiek Udal honek onartutako «Mutriku 2022 Plan Estrategikoa» dokumentuan zehaztutako estrategien baitan kokatzen dira. Planeko helburuek eta estrategiek tokiko garapena bultzatzearen alde egiten dute argiro, batez ere, lehenengo sektorearen bitartez (nekazaritza-arrantza eta gaien eraldaketa) eta hirugarren sektorearen bitartez (merkataritza eta turismoa). Industria sektoreari dagokionean, enpresa berrien kokapena sustatzeaz gain, enpresen beharrei egokitutako azpiegiturak egitea bultzatuko da.

Programa hau eta bertan parte hartzeak berarekin dakar espresuki emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako araudiaren onarpena, bereziki aukera-berdintasuna, genero-ikuspegia barneratzea, ekintza positiboa, sexuaren arabera rola eta estereotipoak ezabatzea eta ordezkaritza orekatua.

AYUNTAMIENTO DE MUTRIKU

Anuncio

Mediante acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 18 de septiembre de 2025, se aprobaron las bases reguladoras del programa de ayudas a la creación de empleo y al emprendizaje (Mutrikulan) en Mutriku correspondientes al ejercicio 2025.

Considerando dichas bases, se realiza la convocatoria de estas subvenciones, disponiendo el plazo de 15 días naturales para la presentación de solicitudes.

Mutriku, a 18 de septiembre de 2025.—La alcaldesa, Ainhize Azpiaz Azkarga. (6480)

Bases reguladoras del programa de ayudas a la creación de empleo y al emprendizaje (Mutrikulan). Convocatoria 2025.

PREÁMBULO

Las medidas establecidas en la presente Ordenanza se dirigen a incentivar la generación de nuevos proyectos empresariales generadores de empleo, premiando además aquellos que posibiliten la inserción laboral de las mujeres y colectivos con especiales dificultades de acceso al mercado laboral, impulsando la creación de empleo.

La situación actual del municipio, con una baja densidad empresarial, hace necesario configurar Programas que promuevan proyectos empresariales generadores de empleo que posibiliten el desarrollo local y dinamicen la actividad económica en el municipio. Para ello, se pondrá a disposición de emprendedores y empresas un entorno administrativo que les facilite la gestión de sus proyectos y contarán con el asesoramiento técnico del Área de Desarrollo Socioeconómico de este Ayuntamiento, en colaboración con la Agencia Comarcal de Desarrollo (Debegesa).

Estas medidas fomentarán también el denominado empleo social, es decir, el autoempleo y la generación de empresas que favorezcan la participación activa de los trabajadores en la gestión (Por ejemplo, cooperativas).

Estas medidas se encuadran entre las estrategias definidas en el «Plan Estratégico Mutriku 2022», aprobado por esta Corporación, cuyos objetivos y estrategias apuestan decididamente por impulsar el desarrollo local, fundamentalmente a través del sector primario (agricultura-pesca y su transformación) y el sector terciario (comercio y turismo). En cuanto al sector industrial, además de impulsar la ubicación de nuevas empresas, se potenciará la realización de infraestructuras adaptadas a sus necesidades.

Este programa y la participación en el mismo conlleva expreso sometimiento a la normativa sobre igualdad de mujeres y hombres y singularmente la igualdad de oportunidades, la integración de la perspectiva de género, la acción positiva, la eliminación de roles y estereotipos en función del sexo y la representación equilibrada.

ATARIKO KAPITULUA

1. artikulua. Definizioa.

Oinarri hauek ekintzailetasuna eta enpleguaren sorrera sustatzeko laguntza multzoa arautzen dute, zeinak Mutrikuko Udalak bere eskuduntzen baitan, Garapen Sozioekonomikoko alorraren bitartez garatzen dituen.

2. artikulua. Eremua.

Ordenantza hau Mutrikuko udalerrian sustatzen diren eta araudi honetara egokitzen diren enpresa-ekimen enplegu sortzaileei aplikatuko zaie.

Oinarri hauen garapen eta kudeaketan Debegesaren laguntza eta elkarlana izango da.

Diru laguntza deialdira aurkezten diren enpresek hertsiki bete beharko dituzte indarrean dagoen legeria ekonomia, zerga, lan eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako kontuetan.

Ordenantza honetan araututako neurrien garapena ondoko programen bitartez gauzatuko da:

- Enpresa-proiektu berrien sustapena.
- Enpleguaren sustapena.

I. KAPITULUA

ENPRESA-PROIEKTU BERRIEN SUSTAPENA

3. artikulua. Xedea.

Oinarri hauen xedea dirulaguntzak emanez Mutrikun enpresak eratzeako enpresa-ekimenei laguntzea da.

4. artikulua. Onuradunak.

Laguntzen onuradunak izango dira honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisikoak nahiz juridikoak:

— Debegesarekin elkarlanean, Garapen Sozioekonomikoko alorreko teknikariek ontzat emandako Bideragarritasun plana eginda izatea.

— Jarduera ekonomikoen gaineko zergan eta Gizarte Segurantzari dagokion erregimenean eman beharreko alta Mutrikuko udalerrian ematea.

— Lantokia Mutrikuko udalerrian egotea eta baita egoitza sozial eta fiskala ere.

— Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren hasiera alta dirulaguntza hauen deialdiari dagokion epeen barruan ematea (salbuespen dira, aurreko Mutrikulan konbokatoriaren aurkezpen epeen ondoren alta eman zutenak, horiek aurkeztu ahal izango dute).

— Lehendik martxan dauden enpresak baina egoitza soziala eta lantokia beste herri batean dutenak eta dirulaguntza hauen deialdiari dagokion epeen barruan egoitza soziala eta lantokia Mutrikura lekualdatzea erabakitzen dutenak, herriko lanpostuak gehituz.

— Zerga betebeharrak eta Gizarte segurantzarekikoak egunean izatea egiaztatzea.

— Mutrikuko Udalarekiko zorrik ez izatea.

— Diru laguntza publikoak lortzeko aukeretatik baztertuta ez izana.

Laguntza hauek lortzerik ez dute izango ondokoek:

— Enpresa berria abiatu aurreko 12 hilabeteetan jarduera berean edo berdintsuan titular moduan, bakarka nahiz sozietatean, jardundako eragileen enpresak.

CAPÍTULO PRELIMINAR

Artículo 1. Definición.

Las presentes bases regulan el conjunto de incentivos al emprendizaje vinculado a la creación de empleo que, en el ámbito de sus competencias, desarrolla el Ayuntamiento de Mutriku, a través del Área de Desarrollo Socioeconómico.

Artículo 2. Ámbito.

La presente Ordenanza será de aplicación para aquellas iniciativas empresariales generadoras de empleo, que se promuevan en el término municipal de Mutriku y que se ajusten a la presente normativa.

En el desarrollo y gestión de estas bases se contará con la asistencia y colaboración de Debegesa.

Las empresas que opten a las ayudas deberán ajustarse estrictamente a la legalidad vigente en materia económica, fiscal, laboral y sobre igualdad de mujeres y hombres.

El desarrollo de las medidas articuladas en la presente Ordenanza se instrumentará a través de los siguientes Programas:

- Fomento de Nuevos Proyectos Empresariales.
- Fomento del Empleo.

CAPÍTULO I

FOMENTO DE NUEVOS PROYECTOS EMPRESARIALES

Artículo 3. Objeto.

El objeto de las presentes bases es apoyar a las iniciativas empresariales para la constitución de empresas en el municipio de Mutriku mediante el otorgamiento de subvenciones.

Artículo 4. Beneficiarios.

Serán beneficiarios de las ayudas las personas físicas o jurídicas que reúnan los siguientes requisitos:

— Haber realizado un Plan de Viabilidad que haya sido evaluado positivamente por los técnicos del Área de Desarrollo Socioeconómico en colaboración con Debegesa.

— Que el alta en el Impuesto sobre Actividades Económicas y en el Régimen correspondiente de la Seguridad Social se efectúe en el término municipal de Mutriku.

— Que el centro de trabajo se ubique en Mutriku, así como el domicilio social y fiscal de la empresa.

— Que el alta inicial en el Impuesto de Actividades Económicas se produzca en el plazo correspondiente a la convocatoria de la presente subvención (a excepción de aquellos que se dieron de alta después de finalizar el plazo de la anterior convocatoria de Mutrikulan que sí se podrán presentar a ésta).

— Empresas ya existentes, con sede social y centro de trabajo en otra localidad y que en el plazo correspondiente a la convocatoria de la presente subvención decidan trasladar su sede social y su centro de trabajo a Mutriku, incrementando los puestos de empleo de la localidad.

— Acreditar el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.

— No tener deudas contraídas con el Ayuntamiento de Mutriku.

— No haber sido excluida del acceso a subvenciones públicas.

Quedarán excluidos de la posibilidad de obtener estas ayudas los siguientes supuestos:

— Empresas cuyos promotores hayan ejercido como titulares, individualmente o en sociedad, en la misma o similar actividad en los 12 meses anteriores a la puesta en marcha de la nueva empresa.

Hala ere, jardueran aldaketa kualitatibo eta kuantitatibo handia suposatzen duten eskariak dirulaguntza jasotzeko aukera izango dute, baina aldaketa hauek ondo azaldu beharko dira eskariarekin batera aurkeztuko den txostenean (epigrafearen aldaketak, lanpostu gehiagoren sorrera, herriko industria sarearen tzako onura...).

Salbuespen gisa, eta kontuan hartuta Mutrikuko merkataritza ekosisteman merkatu plaza birgaitzeko proiektuak izango duen eragin positiboa, laguntza hori eskatu ahal izango dute dagoeneko jarduera berean ari diren saltokiek, euren negozioa ezarri nahi badute edo euren negozioa udal merkaturako postu batera zabaldu nahi badute.

— Aurreko 12 hilabeteetan lokal berean eta jarduera berean egon diren enpresen lehen mailako ahaideen arteko titularitate aldaketa hutsetik sortutako enpresak.

Hala ere, justifikatutako arrazoiak tarteko, adibidez erretiroa, ezgaitasuna, titularraren heriotza edota ezinbesteko arrazoiak, lehenengo graduako ahaideen artean titulartasun aldaketa duten enpresek aukera izango dute diru-laguntza jasotzeko.

— Partaidetza publiko nagusia duten enpresak, sozietate publikoak, zuzenbide publikoko erakundeak, fundazioak eta irabazi-asmorik gabeko elkarteak.

5. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

— Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta ematen denetik, gutxienez, 18 hilabetetan eustea jarduera ekonomikoari.

— Onartutako Bideragarritasun planarekiko enpresa-proiektuari egindako edozein aldaketa, edo aurreikusitako inbertsioa egiten ez bada, Garapen Sozioekonomiko alorrari jakinaraztea, diru laguntza aldatu edo itzularazteko.

— Bideragarritasun plana egiterakoan ekintzailearen parte hartzea beharrezkoa izango da.

— Zerga obligazioak betetzea Gizarte Segurantzarekin, Mutrikuko Udala, Foru Ogasunekin eta Estatuko Ogasunekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin.

— Kontzeptu bererako eskatutako edo jasotako beste laguntza batzuen erantzukizunpeko adierazpena egitea.

— Udalak eskatutako informazio guztia ematea, udalak egiazta dezan diru-laguntza eman zen helbururako erabili dela.

— Laguntzaren onuradun den pertsonak edo enpresak 5 urtez gorde beharko du, laguntzaren zenbateko osoa jasotzen duen unetik zenbatzen hasita, dokumentu honetan laguntza jasotzeko araututako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko balio dezakeen dokumentazio guztia, bai eta egindako inbertsio-gastuak ere. Epe horretan, Udalak onuradunari erreklamatu ahal izango dio entregatutako zenbatekoak eta dagokion berandutze-interesa itzul diezazkiola, baldin eta, inbertsio-gastuak justifikatzeko emandako dokumentazioa eta onuradun izateko gainerako betekizun eta betebeharrak berrikusi ondoren, egiaztatuta geratzen bada agiri honetan ezarritako baldintzetako edozein ez duela bete.

— Mutrikuko Hirigintza Sailari jarduera-lizentzia edo aldezu erreko jakinarazpena eskatzea, dagokionaren arabera, baita obra-lizentzia ere.

6. artikulua. Aurrekontuko Kreditua.

Diru laguntza hauek osatzen dituen funts publikoak izaera mugatua du. 2025 ekitaldiko aurrekontuan Mutrikulan Programari dagokion aurrekontuko lerroaren saldoak osatuko du funts hori.

No obstante, podrán optar a las ayudas siempre y cuando haya un cambio cualitativo y cuantitativo en el tipo de negocio, que tendrá que justificarse bien en el informe que se adjunta a la solicitud (diferencias en el epígrafe, incremento sustancial de puestos de empleo, aportación al tejido empresarial de la localidad...).

De forma excepcional, y considerando el impacto positivo que tendrá el proyecto de rehabilitación de la plaza del mercado en el ecosistema comercial de Mutriku, podrán solicitar esta ayuda, aquellos comercios que ya estén trabajando en la misma actividad y quieran implantar su negocio o ampliar su negocio a un puesto del mercado municipal.

— Empresas surgidas a partir del mero cambio de titularidad entre familiares de primer grado de otras ya existentes en el mismo local y misma actividad en los 12 meses anteriores a dicho cambio.

No obstante, podrán optar a las ayudas las empresas que supongan cambio de titularidad entre familiares de primer grado por causas justificadas como jubilación, incapacidad o fallecimiento del titular o causas de fuerza mayor.

— Empresas con participación pública mayoritaria, las sociedades públicas, las entidades de derecho público, las fundaciones y asociaciones sin ánimo de lucro.

Artículo 5. Obligaciones de los beneficiarios.

— Mantener la actividad económica durante un tiempo mínimo de 18 meses a partir del alta inicial en el Impuesto sobre Actividades Económicas.

— Comunicar al Área de Desarrollo Socioeconómico cualquier alteración del proyecto empresarial con respecto al Plan de Viabilidad aprobado, o la no realización de la inversión prevista, a efectos de modificar o reintegrar la subvención.

— Será necesaria la participación directa del emprendedor en la realización del Plan de Viabilidad.

— Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias frente a la Seguridad Social, el Ayuntamiento de Mutriku, las Haciendas Foral y Estatal y la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

— Realizar una declaración responsable de otras ayudas solicitadas o recibidas para el mismo concepto.

— Facilitar cuanta información sea requerida por el Ayuntamiento para que éste verifique que la ayuda ha sido destinada al fin para el que fue concedida.

— Obligación de la persona o empresa solicitante y beneficiaria de la ayuda de conservar, durante 5 años a contar a partir del momento en que aquel haya recibido el importe íntegro de la ayuda, cuanta documentación pueda servir para la verificación del cumplimiento de las condiciones reguladas en el presente documento para recibir la ayuda, así como de los gastos de inversión realizados. Durante ese plazo, el Ayuntamiento podrá reclamar al beneficiario la devolución de las cantidades entregadas y el interés de demora correspondiente si, tras revisar la documentación facilitada para justificar los gastos de inversión y demás requisitos y obligaciones para ser beneficiario, quedara acreditado que éste hubiera incumplido cualquiera de las condiciones establecidas en este documento.

— Solicitar al Departamento de Urbanismo de Mutriku la licencia de actividad o comunicación previa según corresponda y la licencia de obra.

Artículo 6. Crédito presupuestario.

Los fondos públicos que componen estas subvenciones tienen el carácter limitado al saldo anual de la partida presupuestaria correspondiente al Programa Mutrikulan del Presupuesto municipal del ejercicio 2025.

7. artikulua. Diru laguntzaren izaera.

– Itzuli beharrik gabeko diru laguntza hau bateragarria izango da beste Erakundeek emandako bestelakoekin.

– Garapen Sozioekonomiko alorreko teknikariek, jarduera jardunean izan beharreko 18 hilabeteko epea amaitzen denean, diru laguntzaren ebaluazioa burutuko dute emaitzak, baliagarritasuna eta eragina aztertzeko.

8. artikulua. Diruz lagun daitezkeen gastuak.

Itzuli beharrik gabeko kalkulatzeko parametroak ondokoak izango dira:

- Obra-baimenaren kostua.
- Irekiera-baimenaren kostua.
- Jardueraren lehenengo ekitaldiko Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergaren zenbatekoa, baldin badagokio.
- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren zenbatekoa.
- Jardueraren lehen bi urteetan espazio publikoa okupatzea-gatik ordaintzetik salbuestea, beti ere, dagokion ordenantza fiskalak horrela aurreikusten duenean.
- Ibilgetu ukiezineko gastuak: ikerketa-gastuak, garapen-gastuak, jabetza industrial, aplikazio informatikoak.
- Ibilgetu materialaren gastuak: eraikuntzak, instalazio teknikoak, makinak, tresneria, beste instalazio batzuk, altzariak, informazioa prozesatzeko ekipoak, beste ibilgetu material bat.
- Kanpoan geratuko dira sustatzaileen eremu pertsonalarekin konbinatutako erabilera errazten duten eraikuntza-gastuak.
- Inola ere ez dira diruz lagunduko enpresak gerora merkaturatuko dituen produktuak edo material suntsikorak eta bulegoko materialak erostea. Negozioaren funtzionamendu-gastu arruntak ere ez dira diruz lagunduko.

Diru-kopurua oinarri hauen eranskinean ezartzen dena izango da.

9. artikulua. Diru laguntza ematea.

Garapen Sozioekonomiko alorrak baldintzak betetzen dituzten eskari guztiak aztertuko ditu, eta hamar lan eguneko epea emango du akatsak zuzentzeko edota agiri osagarriak aurkezteko.

Aurrekontuko kreditua baldin badago, diru laguntzak ematea proposatuko da, edo, aurkeztutako proiektua bideragarri jotzen ez bada, eskaria ez onartzea.

Aurrekontuko kreditua Oinarrietako baldintzak betetzen dituzten eskari guztiei legokiekeena betetzeko nahikoa ez bada, laguntzak proportzionalki gutxitu ahal izango zaizkie eskari guztiei.

Erabakiak amaiera ematen dio bide administratiboari; bere aurka berraztertzeko helegitea aurkeztu daiteke hilabeteko epean (edo administrazioarekiko auzi-helegitea bi hilabeteko epean), erabakiaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik.

II. KAPITULUA

ENPLEGUAREN SUSTAPENA

10. artikulua. Xedea.

Itzuli beharrik gabeko diru laguntzak emango dira langileak kontratatzeagatik, ekintzailea bera barne. Kontratazio berriek Ordenantza hau argitaratu aurreko langile kopurua handitu beharko dute.

Artículo 7. Carácter de la subvención.

– El otorgamiento de esta subvención a fondo perdido será compatible con cualesquiera otras otorgadas por otros organismos y entidades.

– Los técnicos del Área de Desarrollo Socioeconómico, a la finalización del período mínimo de mantenimiento de la actividad (18 meses), evaluarán la subvención analizando sus resultados, utilidad e impacto.

Artículo 8. Gastos subvencionables.

Los parámetros para calcular la subvención a fondo perdido serán los siguientes:

- Los costes de la Licencia de Obras.
- Los costes de la Licencia de Apertura.
- La cuantía del Impuesto de Sociedades Económicas del primer ejercicio de actividad, en su caso.
- La cuantía del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.
- Exención del pago por ocupación del espacio público durante los dos primeros años de actividad, siempre y cuando así lo prevea la ordenanza fiscal correspondiente.
- Gastos en inmovilizado intangible: Gastos de investigación, Gastos de desarrollo, propiedad industrial, aplicaciones informáticas.
- Gastos en Inmovilizado material: construcciones, Instalaciones técnicas, maquinaria, utillaje, otras instalaciones, mobiliario, equipos para procesos de información, otro inmovilizado material.
- Quedaran excluidos los gastos de construcción que faciliten un uso combinado con el ámbito personal de los promotores o promotoras.
- En ningún caso serán objeto de subvención la compra de productos que vayan a ser objeto de comercialización posterior por parte de la empresa o de materiales fungibles y de oficina. Los gastos corrientes de funcionamiento del negocio tampoco serán subvencionables.

La cuantía económica será la establecida en el anexo de las presentes bases.

Artículo 9. Otorgamiento de la subvención.

El Área de Desarrollo Socioeconómico examinará todas las solicitudes que cumplan los requisitos y otorgará un plazo de 10 días hábiles para subsanar errores o aportar documentación complementaria.

Si existe crédito presupuestario se propondrá el otorgamiento de las subvenciones o la desestimación de la misma en caso de que el proyecto presentado sea considerado no viable.

En caso de que la cuantía económica del crédito presupuestario consignado fuese insuficiente para atender a todas las solicitudes que cumplan los requisitos de las Bases, las ayudas podrán reducirse proporcionalmente en todas las solicitudes.

La resolución pone fin a la vía administrativa; contra la misma puede interponerse recurso de reposición en el plazo de un mes o recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de recibo de notificación de la resolución.

CAPÍTULO II

FOMENTO DEL EMPLEO

Artículo 10. Objeto.

Serán concedidas subvenciones a fondo perdido por la contratación de personal, incluido en su caso el propio emprendedor. Las nuevas contrataciones deberán suponer un incremento de plantilla respecto al momento anterior a la publicación de la presente Ordenanza.

Kalitatezko enplegua sortzea sustatuko da, batez ere langabeen kontratazioan, bereziki lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten kolektibo hauetan: emakumeak, 30 urtetik beherako gazteak, 45 urtetik gorakoak, iraupen luzeko langabeak eta disfuntzionalitate fisikoa/psikikoa duten edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonak.

Babes berezia emango zaie lehenengo sektoreko kontratazio berriei (nekazaritza-arrantza eta euren gaien eraldaketa) eta ku-deaketan langileen parte hartze zuzena ahalbidetzen duten enpresei (adibidez, kooperatibak) burututakoei.

Kontratu berriek indarrean dauden arloko lan hitzarmenak bete beharko dituzte eta, gutxienez, lanaldi-erdikoak izango dira.

11. artikulua. Diru laguntzen hartzaileak.

Diru laguntza hauen hartzaileak izango dira honako balizko egoeretako baten dauden enpresak:

- Legez eraturako enpresa berriak, deialdian zehaztutako erreferentzia-epaeldian Jarduera Ekonomikoen gaineko zergan alta emandakoak; lantokia Mutrikuko udalerrian dutenak; eta lanpostu berriak sortzen dituztenak.

- Lehendik dauden enpresak, Mutrikun egoitza soziala eta lantokia dutenak, izaera egonkorrekin plantilla handitzen dutenak.

- Lehendik martxan dauden enpresak baina egoitza soziala eta lantokia beste herri batean dutenak eta egoitza soziala eta lantokia Mutrikura lekualdatzea erabakitzen dutenak, herriko lanpostuak gehituz.

- Legez eraturako erakundeak, Mutrikun lantoki bat dutenak, eta enpresa gisa disfuntzionalitate fisikoa/psikikoa duten pertsonak edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonak lan-merkatuan sartzeko dutenak helburu nagusi (enpresako plantillaren % 80k baino gehiagok gutxienez % 33ko disgaitasuna izango deklaratu ahal izango du, edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan egongo da).

Laguntza hauetatik bazter geratuko dira:

- Enpresa berrien atalean: Enpresa berria abiatu aurreko 12 hilabeteetan jarduera berean edo berdintsuan titular moduan, bakarka nahiz sozietatean, jardundako eragileen enpresak.

Hala ere, jardueran aldaketa kualitatibo eta kuantitatibo handia suposatzen duten eskariak dirulaguntza jasotzeko aukera izango dute, baina aldaketa hauek ondo azaldu beharko dira eskariarekin batera aurkeztuko den txostenean (epigrafearen aldaketak, lanpostu gehiagoren sorrera, herriko industria sarearen tzako onura...).

- Enpresa berrien atalean: Aurreko 12 hilabeteetan lokal berean eta jarduera berean egon diren enpresen lehen mailako ahaideen arteko titularitate aldaketa hutsetik sortutako enpresak.

Justifikatutako arrazoiak tarteko, adibidez erretiroa, ezgaitasuna, titularraren heriotza edota ezinbesteko arrazoiak, lehenengo graduako ahaideen artean titulartasun aldaketa izan duten enpresek.

- Partaidetza publiko nagusia duten enpresak, sozietate publikoak, zuzenbide publikoko erakundeak, fundazioak eta irabazi-asmorik gabeko elkarteak.

12. artikulua. Eman beharreko laguntzak.

Eman beharreko laguntzak itzuli beharrik gabeko izaera izango dute.

Diru laguntzak jaso ahal izateko baldintzei, gutxienez, 18 hilabetetan eutsi beharko zaie, Gizarte Segurantzaren alta ematen denetik aurrera zenbatuak.

Se fomentará la creación de un empleo de calidad, incidiendo especialmente en la contratación de personas desempleadas, prioritariamente de los siguientes colectivos con especiales dificultades de acceso al mercado de trabajo: Mujeres, jóvenes menores de 30 años, mayores de 45 años, parados de larga duración y de personas con disfuncionalidad física/psíquica o en riesgo de exclusión social.

Se dará especial protección a las nuevas contrataciones en el sector primario (agricultura-pesca y su transformación) y en aquellas empresas que favorezcan la participación de los trabajadores en la gestión (por ejemplo, las cooperativas).

Las nuevas contrataciones deberán cumplir con los convenios laborales sectoriales en vigor y deberán ser, mínimo, de media jornada.

Artículo 11. Destinatarios de las ayudas.

Serán destinatarias de estas ayudas las empresas que se encuentren en alguno de los siguientes supuestos:

- Entidades nuevas constituidas legalmente, dadas de alta en el Impuesto de Actividades Económicas en el período de referencia que se marque en la convocatoria, con centro de trabajo y sede social en Mutriku y que generen nuevos empleos.

- Empresas ya existentes, con sede social y centro de trabajo en Mutriku, que incrementen plantilla con carácter estable.

- Empresas ya existentes, con sede social y centro de trabajo en otra localidad y que decidan trasladar su sede social y su centro de trabajo a Mutriku, incrementando los puestos de empleo de la localidad.

- Entidades constituidas legalmente, que cuenten con un centro de trabajo en Mutriku, y cuyo objetivo principal como empresa sea la inserción de personas con disfuncionalidad física/psíquica o personas en riesgo de exclusión social al mercado laboral (más de un 80 % de la plantilla de la empresa tendrá declarada mínimo una discapacidad del 33 % o estará en riesgo de exclusión social).

Quedarán excluidas de la posibilidad de obtener estas ayudas:

- En el apartado de entidades nuevas: Empresas cuyos promotores hayan ejercido como titulares, individualmente o en sociedad, en la misma o similar actividad en los 12 meses anteriores a la puesta en marcha de la nueva empresa.

No obstante, podrán optar a las ayudas siempre y cuando haya un cambio cualitativo y cuantitativo en el tipo de negocio, que tendrá que justificarse bien en el informe que se adjunta a la solicitud. (Diferencias en el epígrafe, incremento sustancial de puestos de empleo, aportación al tejido empresarial de la localidad...).

- En el apartado de entidades nuevas: Empresas surgidas a partir del mero cambio de titularidad entre familiares de primer grado de otras ya existentes en el mismo local y misma actividad en los 12 meses anteriores a dicho cambio.

No obstante, podrán optar a las ayudas las empresas que supongan cambio de titularidad entre familiares de primer grado por causas justificadas como jubilación, incapacidad o fallecimiento del titular o causas de fuerza mayor.

- Empresas con participación pública mayoritaria, las sociedades públicas, las entidades de derecho público, las fundaciones y asociaciones sin ánimo de lucro.

Artículo 12. Ayudas a conceder.

Las ayudas a conceder tendrán carácter de subvención a fondo perdido.

Las circunstancias que den lugar a la percepción de las ayudas deberán mantenerse un mínimo de 18 meses, contados a partir del alta en la seguridad social.

Diru laguntza kopurua oinarri hauen eranskinean ezarritakoa izango da. Programa honen bitartez banatu beharreko kopuruak aurrekontuaren erabilgarritasunak baldintzatuta egongo dira.

III. KAPITULUA

PROGRAMEN BATERAKO ARAUAK

13. artikulua. Eskarien aurkezpena eta tramitazioa.

Oinarri hauetan araututako diru laguntzetarako eskariak Mutriku Udaleko Garapen Sozioekonomiko alorrari zuzenduko zaizkio, eta urteko deialdian zehazten den tokian aurkeztuko dira.

Eskariak normalizatutako eskari-orrietan aurkeztuko dira, enpresaren ordezkariak duen pertsonak sinatuta. Eskarietan honako zinpeko aitortza hauek ere jasoko dira: helburu beragatik jasotako edota eskatutako beste diru laguntzen inguruko zinpeko aitortza eta oinarri hauetan aurreikusitako baztertze-arrazoietan sartuta ez egotearen aitortza.

Honako agiriak erantsiko dira:

- a) Enpresen aldetik:
 - Bideragarritasun plana.
 - Dirulaguntza eskarian aurkeztutako proiektuaren memoria zehatza.
 - Egindako edo aurreikusitako inbertsioen datu zehatzak. (aurrekontu edo fakturak ere gehitu beharko dira).
 - IFKren kopia.
 - Eskatzailearen edo ordezkariaren nortasun agiriaren kopia.
 - Jarduera Ekonomikoen gaineko zergaren altaren kopia.
- Eskatutako beste laguntza batzuen erantzukizunpeko adierazpena.
- Sustatzaileen lan-bizitzari buruzko txostena.
- Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izatearen aitortza.
- Banketxeko kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria.
- Alokairuaren kontratua, dagokion kasuetan bakarrik.

— Hala badagokio, plantilaren % 80a baina gehiagok desgaitasun fisikoa duten pertsonak betetzen dutenaren ziurtagiri bat.

- b) Kontratutako pertsonenak:
 - Nortasun agiriaren kopia.
 - Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean emandako altaren kopia.
 - Lan- bizitzaren txostena.
 - Desgaitasun fisikoa ziurtatzen duen agiriaren kopia edo gizarte-bazterketako arriskuan dagoen pertsona egiaztatze txostena (hala badagokio bakarrik).

Eskabidea aurkezteak berekin ekarriko du bertan jasotako datuak tratatzeko baimena ematea eta, hala badagokio, beste administrazio publiko edo erakunde instituzional batzuekin gurutzea, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean ezarritakoaren arabera.

14. artikulua. Eskariak aurkezteko epea.

Eskariak aurkezteko epea hamabost egun naturalekoa izango da, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharramunetik aurrera kontatzen hasita.

15. artikulua. Bateriaezintasunak.

Hemen aurreikusitako onuradunek, helburu bererako beste laguntza publiko batzuekin batera, ezin izango dute pizgarri den kontratuari dagokion urteko soldata-kostuaren % 60a gainditu, ez eta aurkeztutako inbertsioen kostuaren % 100 gainditu ere.

La cuantía económica será la establecida en el anexo de las presentes bases. Las cantidades a distribuir a través de este programa estarán condicionadas por la disponibilidad presupuestaria.

CAPÍTULO III

NORMAS COMUNES DE LOS PROGRAMAS

Artículo 13. Presentación y tramitación de solicitudes.

Las solicitudes para las ayudas reguladas en estas bases irán dirigidas al Área de Desarrollo Socioeconómico del Ayuntamiento de Mutriku, presentándose las mismas en el lugar establecido en la convocatoria anual.

Las solicitudes se presentarán en impresos de solicitud normalizados firmados por la persona que ostente la representación de la empresa. En ellos se recogerá declaración responsable relativa a otras ayudas concedidas y/o solicitadas para la misma finalidad, así como declaración de no encontrarse incurso en ninguna de las causas de exclusión previstas en las presentes bases.

Se acompañará la documentación siguiente:

- a) Por parte de las empresas:
 - Plan de viabilidad.
 - Memoria detallada del proyecto presentado a subvención.
 - Datos detallados de las inversiones realizadas o previstas (adjuntando presupuestos o facturas).
 - Fotocopia del CIF.
 - Fotocopia del DNI del solicitante o representante.
 - Fotocopia del alta en el Impuesto de Actividades Económicas.
 - Declaración responsable de otras ayudas solicitadas.
 - Informe de vida laboral de los promotores.
 - Declaración de estar al corriente de pagos con la Hacienda Foral y la Seguridad Social.
 - Certificado de titularidad de cuenta corriente bancaria.
 - Contrato de alquiler, sólo en aquellos casos que corresponda.
 - Si corresponde, certificado que demuestre que más del 80 % de la plantilla tiene una discapacidad física.
- b) De las personas contratadas:
 - Fotocopia del DNI.
 - Fotocopia del alta en el Régimen correspondiente de la Seguridad Social.
 - Informe de vida laboral.
 - Copia del certificado de discapacidad física de las personas contratadas o informe de acreditación de persona en riesgo de exclusión social (solo si procede).

La presentación de la solicitud implicará la autorización del tratamiento de los datos contenidos en la misma y, en su caso, al cruce de los mismos con otras Administraciones Públicas o entidades institucionales, de acuerdo con lo establecido en el Reglamento General de Protección de datos.

Artículo 14. Plazo de presentación.

El plazo de presentación de solicitudes de quince días naturales a contar desde el día siguiente de la publicación de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Artículo 15. Incompatibilidades.

Los beneficiarios aquí previstos no podrán, en concurrencia con otras ayudas públicas para la misma finalidad, superar el 60 % del coste salarial anual correspondiente al contrato que se incentiva, ni el 100 % del coste de las inversiones presentadas.

16. artikulua. Diru laguntzak ordaintzea.

Oinarri hauetan jasotako diru laguntzen ordainketak zenbait ordainketa-alditan egingo dira udal Diruzaintzaren antolaketari eta erabilgarritasunaren eta aurrekontuko diru-dotazioaren araber:

– Jardueraren lehenengo urtean diru laguntzaren % 60 ordainduko da.

– Gainerakoa, diru laguntza onartzen denetik 12 hilabete igarotakoan eta Garapen Sozioekonomiko Alorreko teknikariak proiektuaren ebaluazioa egin ondoren. Horretarako, Korporazioak hurrengo urteko aurrekontuan beharrezko diru-kopurua ezarriko du.

17. artikulua. Oinarriak ez betetzea.

Onuradunak Oinarri hauetan ezarritako edozein baldintza ez betetzeak diru laguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du. Ordurako diru laguntzaren zati bat jasota izanez gero, hori itzuli egin beharko du, eta dagozkion atzerapen interesak eskatu ahal izango zaizkio.

18. artikulua. Araudi aplikagarria.

Oinarri hauetan jasotzen ez den guztiari Mutriku Udalak Emandako Diru laguntzak Kudeatzeko Ordenantza Orokorra, azaroaren 17ko Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoa eta indarrean dauden gainerako arauak aplikatuko zaizkio.

Lehenengo xedapen gehigarria. Aurrekontuko diru-hornidura.

Oinarri hauetan programetan araututako laguntzak ematea ekitaldi ekonomiko bakoitzean aurrekontuko diru-dotazioa egoteari baldintzatuta egongo da.

Bigarren xedapen gehigarria. Araudia betetzea eta exekuzioa.

Mutriku Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak oinarri hauen garapenerako eta exekuziorako beharrezko diren xedapen guztiak emango ditu.

I. ERANSKINA

ENPRESA-PROIEKTU BERRIEN SUSTAPENA

Diru laguntzen kopurua zehazteko ondokoa izango da kontuan:

1. Ondasun Higiezin gaineko Zerga.

– 5 lanpostu baino gutxiago sortzen badira, zerga honen % 50aren kopuru bereko dirulaguntza dagokio lehenengo urtean; % 25arena, bigarren urtean eta % 10arena, hirugarren urtean.

– 5 lanpostu edota gehiago sortzen badira, zerga honen % 75aren kopuru bereko laguntza dagokio lehenengo urtean; % 50arena, bigarren urtean eta % 25arena, hirugarren urtean.

2. Higiezina errentan hartua bada eta jardueraren titularrak OHZ ordaindu beharrik ez badu, errentaren zati bat ordainduko zaio ondoko baldintzei jarraiki:

– 5 lanpostu baino gutxiago sortzen badira, lehenengo urtean, urteko errentaren % 10 ordainduko da, gehieneko kopurua 500,00 € izanik; bigarren urtean, % 8, gehienez 400,00 €; eta hirugarren urtean, % 5, gehienez 250,00 €.

– 5 lanpostu edo gehiago sortzen badira, lehenengo urtean, urteko errentaren % 10 ordainduko da, gehieneko kopurua 1.000,00 € izanik; bigarren urtean, % 8, gehienez 800,00 €; eta hirugarren urtean, % 5, gehienez 500,00 €.

– Errentaren kopuruaren kalkulurako diru laguntza eskaria aurkezterakoan indarrean dagoen errenta kontratuan zehazten den errenta prezioa izango da kontuan. Errentak izan dezakeen goerarik ez da izango kontuan.

Artículo 16. Abono de las subvenciones.

El abono de las subvenciones contenidas en las presentes bases se realizará en varios pagos, atendiendo a las disponibilidades y organización de la Tesorería municipal y a la dotación presupuestaria correspondiente:

– El primer año de actividad se abonará el 60 % de la subvención.

– El resto se hará una vez transcurridos 12 meses desde la concesión de la subvención y tras haber sido evaluado el proyecto por la técnica del Área de Desarrollo Socioeconómico del Ayuntamiento. Para ello, la Corporación consignará la cuantía necesaria en el siguiente ejercicio presupuestario.

Artículo 17. Incumplimiento de las bases.

El incumplimiento por parte del beneficiario de cualquiera de las condiciones establecidas en las presentes bases conllevará la declaración de la pérdida de derecho a la subvención, la obligación a restituir las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente.

Artículo 18. Normativa aplicable.

En todo lo no previsto en las presentes bases será de aplicación lo dispuesto en la ordenanza General para la Gestión de las Subvenciones Concedidas por el Ayuntamiento de Mutriku, en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en las demás normas vigentes.

Disposición adicional primera. Existencia de dotación presupuestaria.

La concesión de ayudas reguladas en los programas de las presentes bases estará condicionada a la existencia de dotación presupuestaria.

Disposición adicional segunda. Desarrollo normativo y ejecución.

La Junta de Gobierno Local de Mutriku dictará cuantos actos sean necesarios para el desarrollo, ejecución e interpretación de las presentes bases.

ANEXO I

FOMENTO DE NUEVOS PROYECTOS EMPRESARIALES

Para el cálculo de la cuantía de las ayudas se tendrá en cuenta lo siguiente:

1. Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

– En caso de creación de menos de 5 puestos, corresponderá una cuantía igual al 50 % el primer año, del 25 % el segundo y del 10 % el tercero.

– En caso de creación de 5 o más puestos de trabajo, corresponderá una cuantía igual al 75 % de este impuesto el primer año de actividad, del 50 % el segundo y del 25 % el tercero.

2. En el caso de que el inmueble esté arrendado y no corresponda el pago del IBI al titular de la actividad, se abonará parte del alquiler atendiendo a las siguientes condiciones:

– En caso de creación de menos de 5 puestos de trabajo, se concederá el primer año una cantidad igual al 10 % del alquiler anual, con un máximo de 500,00 €; el segundo año, el 8 %, con un máximo de 400,00 €; y el tercer año, el 5 %, con un máximo de 250,00 €.

– En caso de creación de 5 o más puestos de trabajo, se concederá el primer año una cantidad igual al 10 % del alquiler anual, con un máximo de 1.000,00 €; el segundo año, el 8 %, con un máximo de 800,00 €; y el tercer año, el 5 %, con un máximo de 500,00 €.

– Para el cálculo de las cantidades del alquiler se tendrá en cuenta el montante establecido en el contrato vigente de alquiler en el momento de presentación de la solicitud de ayudas. No se tendrán en cuenta las subidas de alquileres.

— Atal hau ez zaie aplikatuko merkatu plazan edo Arku Gain Coworking Gunean ezartzen diren jarduerai, horien titularrek dagokien tasa ordaindu beharko baitute.

3. Obra baimenak: Obra baimenari dagokion adinako kopurua.

4. Inbertsioetarako laguntza:

— 100.000,00 €tik gorako inbertsioak, % 6ko laguntza, gehienez 10.000,00 €koa.

— 50.000,00 € eta 100.000,00 € arteko inbertsioak, % 6ko laguntza, gehienez 6.000,00 €.

— 50.000,00 € baino gutxiagoko inbertsioak, laguntzaren % 25, eta 3.000,00 € gehienez.

5. Oinarri den kopuru horren % 10 gehituko zaio, enpresa onuradunaren jarduera nagusia lehen sektoreari (edo berauen eraldaketari) badagokio.

6. Oinarri den kopuru horren % 10 gehituko zaio Gizarte-enplegua sortuz gero (adibidez, kooperatibak).

7. Oinarritzko zenbatekoaren gaineko % 10eko igoera izango da, ekonomia zirkularra edo ekonomia urdinean oinarritzen diren ekimenei.

8. Industria-sektoreei lotuta ez dauden ekimenen kasuan, % 10 igoko da oinarritzko zenbatekoaren gainean, baldin eta herriko hirigune historikoan ezartzen badira.

II. ERANSKINA

ENPLEGUAREN SUSTAPENA

Enpresa berri edo enpresa gisa desfuntzionaltasun fisikoa edo psikikoa duten pertsonak edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonak lan-merkatuan sartzea helburu nagusi duten enpresentzako laguntzaren zenbatekoa:

Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean alta emandako pertsona berri bakoitzeko 1.000,00 €ko oinarria izango da. Kopuru hori ondo moduetan gehitu daiteke:

— Oinarri den kopuru horren % 10 gehiago jasoko da laguntzagai den lanpostua ondoko kolektiboetakoa den pertsona batek betetzen badu: emakumeak, 30 urte azpiko gazteak, luzaroko langabeak (kontratazioaren aurreko 24 hilabeteetan Lanbiden langabe egoeran izena emanda egon direnak) edo 45 urtetik gorako langileak.

— Oinarri den kopuru horren % 15 gehiago jasoko da enpresa onuradunaren jarduera nagusia lehen sektorekoa bada (edo lehen sektoreko gaiak eraldatzeko).

— Oinarri den kopuru horren % 15 gehiago jasoko da enplegu soziala sortzearen (adb. kooperatibak).

— Ehuneko hauek bateragarriak izango dira.

Lehendik dauden eta Mutriku jarduera ekonomikoa eta lan-tokia duten enpresentzako laguntzaren zenbatekoa:

Oinarritzat hartzen da 500,00 € Gizarte Segurantzako Erregimen egokian alta emanda dagoen eta kontratazio berriaren aurreko unearrekin alderatuta plantilla handitzea dakarren pertsona berri bakoitzeko:

— Oinarritzko zenbatekoaren % 10ean, diruz lagundu beharreko lanpostua kolektibo hauetako batek betetzen badu: emakumeak, 30 urtetik beherako gazteak, iraupen luzeko langabeak (Lanbiden izena emanda egon behar dute kontratatatu baino 24 hilabete lehenago), gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonak edo bazterketa-arriskuan dagoen desgaitasun fisiko/psikikoa duten pertsonak edo 45 urtetik gorako langileak.

— Este apartado no será aplicable a las actividades que se implanten en la plaza del mercado o en la Zona de Coworking Arku Gain, cuyos titulares deberán pagar la tasa correspondiente.

3. Licencia de Obras: corresponderá una cuantía igual al importe total de la licencia de obras.

4. Ayuda a las Inversiones:

— Inversiones superiores a 100.000,00 €, un 6 % de ayuda con un máximo de 10.000,00 €.

— Inversiones de entre 50.000,00 € y 100.000,00 €, un 6 % de ayuda con un máximo de 6.000,00 €.

— Inversiones de menos de 50.000,00 € un 25 % de ayuda con un máximo de 3.000,00 €.

5. Se incrementará en un 10 % sobre el importe base si la actividad principal de la empresa beneficiaria corresponde al sector primario (o transformador del mismo).

6. Se incrementará en un 10 % sobre el importe base en caso de creación de empleo social (P. ejemp. cooperativas).

7. Se incrementará en un 10 % sobre el importe base en caso de empresas con proyectos basados en los principios de la economía circular o la economía azul.

8. En el caso de iniciativas no vinculadas a sectores industriales, se incrementará en un 10 % sobre el importe base en caso de que se establezcan en el Casco Histórico de la localidad.

ANEXO II

FOMENTO DEL EMPLEO

Cuantía de la ayuda para nuevas empresas o empresas ya creadas cuyo objetivo principal como empresa sea la inserción de personas con disfuncionalidad física/psíquica o personas en riesgo de exclusión social al mercado laboral:

Se considera como base 1.000,00 € por cada nueva persona dada de alta en el Régimen correspondiente de la Seguridad Social. Además, esta cantidad se incrementará:

— En un 10 % del importe base, si el puesto de trabajo a subvencionar es ocupado por una persona perteneciente a alguno de los siguientes colectivos: mujeres, jóvenes menores de 30 años, parados de larga duración (inscritos en Lanbide con antigüedad mayor a 24 meses inmediatamente antes de su contratación), personas en riesgo de exclusión social o personas con una discapacidad física/psíquica en riesgo de exclusión o trabajadores mayores de 45 años.

— Se incrementará en un 15 % sobre el importe base si la actividad principal de la empresa beneficiaria corresponde al sector primario (o transformador del mismo).

— Se incrementará en un 15 % sobre el importe base en caso de creación de empleo social (P. ejemp. cooperativas).

— Estos porcentajes serán acumulables.

Cuantía de la ayuda para empresas ya existentes, con actividad económica y centro de trabajo en Mutriku:

Se considera como base 500,00 € por cada nueva persona dada de alta en el Régimen correspondiente de la Seguridad Social y que suponga un incremento de plantilla respecto al momento anterior a la nueva contratación. Además, esta cantidad se incrementará:

— En un 10 % del importe base, si el puesto de trabajo a subvencionar es ocupado por una persona perteneciente a alguno de los siguientes colectivos: mujeres, jóvenes menores de 30 años, parados de larga duración (inscritos en Lanbide con antigüedad mayor a 24 meses inmediatamente antes de su contratación), personas en riesgo de exclusión social o personas con una discapacidad física/psíquica en riesgo de exclusión o trabajador mayor de 45 años.

— Oinarrizko zenbatekoari % 15 gehituko zaio, enpresa onuradunaren jarduera nagusia lehen sektoreari (edo eraldaketari) badagokio.

— % 15 gehituko da enplegu soziala sortuz gero (adibidez, kooperatibak).

— Ehunekoak metagarriak izango dira.

— Se incrementará en un 15 % sobre el importe base si la actividad principal de la empresa beneficiaria corresponde al sector primario (o transformador del mismo).

— Se incrementará en un 15 % en caso de creación de empleo social (P. ejemp. cooperativas).

— Estos porcentajes serán acumulables.